

Bob Barker itsasontzia Getxon:
marrazoaren erraietara bisita



SEA SHEPHERD
Itsas fauna babesteko
ekintza zuzena
erabiltzen du nazioarteko
talde ekologistak

hirulka

119. zenbakia

2018ko martxoaren 9tik 14ra arte



Itsaso morea mundua gelditzeko

Uribe Kostako milaka emakume irten dira kalera martxoaren 8ko greba feministan, «gu barik mundua ez da mugitzen!» aldarrikatzera. Egunak emandako irudi esanguratsuenak jaso ditugu.

MATXITXAKOKO ITSAS GUDUA | 2-3

KANTAUIN BORROKATU ZIRENAK AKORDUAN

Martxoaren 5ean, Matxitxakoko batailan parte hartu zuten gudariak gogoratu zituen Oroilore ikerketa-taldeak, Gorlizen.

SARRI ETA ORMAZA ERREKAK | 4

GETXOKO ERREKASTOAK BABESTEA ESKATU DUTE

Hiriko errekek babestea eskatu diote udalerriko sei elkartek URA Uraren Euskal Agentziari, Sarriren ibilgua garbitu ondoren.

SOPELAKO UDAL-AURREKONTUAK | 5


ZAURI ZAHARRAK ZABALDU EGIN DIRA

Udal-gobernuaren eta Orain Sopelaren arteko akordioak tirabirak eragin ditu oposizioko alderdi politikoen artean.

SAHARAKO MARATOIA | 12-13

AZKEN LASTERKETA IZAN DADILA GURA DUTE

Begoña Beristain eta Jon Salvador atleta erandioztarrek saharar herriaren lekukotasuna ekarri dute Aljeriako basamortutik.



Antonio Oleaga
Bou Nabarra

Kargua
Kanoilaria.

Alderdia
EAJ.

Herria
Gorliz.

Batailaren ostean
Hilda.




Antonio Sánchez
Bou Donostia

Kargua
Makinista gaitua.

Sindikaturia
UGT.

Herria
Plentzia.

Batailaren ostean
Onik.



Patxo Elortegi
Bou Donostia

Kargua
Komandantea.

Alderdia
EAJ.

Herria
Plentzia.

Batailaren ostean
Onik.




German Beraza
Bou Gipuzkoa

Kargua
Kontramaisua.

Sindikaturia
CNT.

Herria
Algorta.

Batailaren ostean
Zaurituta.



Jose Zabala
Bou Gipuzkoa

Kargua
Labezaina.

Sindikaturia
ELA.

Herria
Sopela.

Batailaren ostean
Onik.



Manuel Cajigas
Bou Nabarra

Kargua
Makinaria.

Alderdia
EAE-ANV.

Herria
Getxo.

Batailaren ostean
Hilda.

Kantaurin borrokat

Martxoaren 5ean, Matxixakoko itsas gudua gogorarazteko ekitaldia egin zuen Oroilore ikerketa-taldeak, Astondon, Gorlizen. Izan ere, batailan parte hartu zuten gudarietako asko eskualdekoak ziren: lau uribekostar hil ziren.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIAK: © GFA-DFG ▶

Joan den astelehenean, uretara loreak botaz izan zituzten akorduan Matxixakoko itsas guduan parte hartu zuten Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntzako Ontzitaldeko kideak. Beraz, matxinatutako Espainiako Armadako *Canarias* gurutzantz handiaren aurka euskal ontzi txikietan borrokatu ziren Uribe Kostako lagunak gogoratu zituzten bertan zeuden horietako batzuen senideak. Ekitaldia antolatu zuen Oroilore ikerketa-taldearen arabera, *Bou Nabarra* ontzian hil ziren Remigio Atxirika zerbitzari eta CNTko kide gorliztarra, Antonio Oleaga artillero eta EAJko eta ELAko militante gorliztarra, eta Pedro López Alderdi Komunistako kide plentziarra. Itsasontzi berean Manuel Cajigas ere zendu zen, makinaria eta ELAko sindikalista algortarra. Horrez gainera, Juan Pardo San Gilek idatzitako *Euzkadiko Gudontzidia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)* liburuan irakur daitekeenez, *Bou Gipuzkoa* ontziko kontramaisua zen Germán Beraza CNTko kide algortarra zauritu zen *Canarias* gurutzantziko kanoikaden ondorioz. Denera, 40 lagun hil ziren guduan: 29 *Bou Nabarran*, bost *Bou Gipuzkoan*, bost *Galdames* merkantzia-ontzian (bidaiariak ziren), eta bat *Canariasen*.

Oroilorek gogorazti duenez, bataila berean parte hartu zuten Patxo Elortegik, Nicolas Elortegik, Antonio Sánchezek, Rafael Mentxakak eta Txomin Ibergaraik; azken hori armintzarra zen, gainerakoak plentziarrak. Patxo Elortegi *Bou Donostiaren* komandantea izan zen; bere anaia, makinaria; Mentxaka, *Bou Bizkaiaren* lehen ofiziala. Historia polita da Mentxakarena: Matxixakoko gudutik urtebetera, 1938ko martxoaren 5ean, Cabo de Paloseko (Murtzia) batailan parte hartu zuen. *Baleares* gurutzantzia hondoratu zuten, *Canariasen* bikia, bera *Almirante Antequera* destruktorearen komandante-ordea zela. Lehen aipatutako Juan Pardo San Gilen lanaren arabera, ho-

nako hauek ere izan ziren batailan: Alberto Unibaso barrikotarra, Jose Zabala sopolotarra, eta Luis Barañano eta Avelino González getxotarra.

GERTAERAK. Martxoaren 4an, *Bizkaia*, *Gipuzkoa*, *Donostia* eta *Nabarra* bou armatuak Baionatik irten ziren *Galdames* ontziko gutunak, 173 bidaiari, makineria eta Eusko Jaurlaritzarentzat ziren nikelazko 500 tona txanpon jagoteko; errepublikar erre-fuxiatu eta politikari ugari omen zeuden ontzian. *Galdames* Bilborantz zihoan. Bestalde, *Canarias* gurutzantz astuna Ferroletik atera zen, *Galdames* ontzia gerarazteko helburuz, errepublikarentzat hornidurak eta armak zeroatzalako. Aterioak ikus ez zezan, *Galdamesek* argiak eta irratia amatatuta zeroatzen. Gainera, eguraldia txarra zen. Baldintza horietan *Bizkaia* eta *Gipuzkoa* bouek aurrea hartu zioten. Martxoaren 5eko egunsentian, gainerako ontzien bila zebiltzala, *Canarias* ontzi frankistagaz topo egin zuten.

Bou bi izan arren *Canariasek* *Gipuzkoa* baino ez zuen ikusi, Bilborantz zetorrela Santoña aldetik. 13:35ean, 6.000 metro ingururaino murritua zeukan ontzi matxinatuak boutik bereizten zuen tarte, eta tiro egin zion 120 milimetroko piezez. *Gipuzkoak* berehala erantzun zion. Minutu gutxi igarota, *Canariasek* botatako kanoikada batek bete-betean jo zuen popako kanoian, artillero biak hil eta beste batzuei zauriak eraginez. Baina *Gipuzkoak* tiro egiten jarraitu zuen brankako kanoiaz, baita *Canarias* jo ere B behaketa-postuko kasetatxoan, popan; hildako bat eta zauritu bat eragin zituen. Mendebaldeko itsas-ki handiak erabat zailtzen zuen pieza ertainen punteria, eta *Canariasek* 203 milimetroko kanoiak lanean ipintzea erabaki zuen. 13:45ean kalibre horretako tiro-andana batek bete-betean harrapatu zuen *Gipuzkoaren* aginte-zubia: sute handia sortzeaz gainera, bigarren ofiziala, telegrafista eta lemaria hil zituen eta komandanteari zauriak eragin zizkion.

Jazartze horretan, *Canarias* Galea lurmuturreko kostako bateriaren mendean ipini zen, eta 14:00etan tiro egiten hasi ziren kostatik. Matxinatuen gurutzantzia iparrera jo zuen berehala, alde eginez, eta *Gipuzkoak* sutan eta matxura handiakaz, zelan edo halan, Portugaleten sartzea lortu zuen 15:00etan. Bitartean, *Bizkaia* Estoniako banderapeko ontzi ezezagun bat

900

gizonek osatzen zuten 1936ko gerran sortutako Euzkadiko Gudontzidia. Horietatik asko eskualdekoak ziren.

81

urte igaro dira *Bizkaia*, *Gipuzkoa*, *Donostia* eta *Nabarra* bou armatuek Espainiako Armadako *Canarias* gurutzantzia aurre egin ziotenetik, 1937ko martxoaren 5ean.

34

itsas gudari hil ziren Matxixakoko batailan; horietatik lau Uribe Kostako bizilagunak ziren.




Nicolas Elortegi
Bou Donostia

Kargua
Bigarren makinaria.

Sindikatura
ELA.

Herria
Plentzia.

Batailaren ostean
Onik.



Pedro López
Bou Nabarra

Kargua
Endai-mutila.

Alderdia
Alderdi Komunista.

Herria
Plentzia.

Batailaren ostean
Hilda.



Rafael Mentxaka
Bou Bizkaia

Kargua
Lehenengo ofiziala.

Sindikatura
UGT.

Herria
Plentzia.

Batailaren ostean
Onik.



Remigio Atxirika
Bou Nabarra

Kargua
Zerbitzaria.

Sindikatura
CNT.

Herria
Gorliz.

Batailaren ostean
Hilda.



Avelino González
Bou Bizkaia

Kargua
Bigarren ofiziala.

Sindikatura
ELA.

Herria
Getxo.

Batailaren ostean
Onik.



Txomin Ibergarai
Bou Nabarra

Kargua
Marinela.

Sindikatura
UGT.

Herria
Lemoiz.

Batailaren ostean
Onik.

u zirenak akorduan

topatu zuen ezustean; borrokaldia hasi aurretik *Canariasek* atxilotua zuen. *Yorkbrook* ontzia zen, eta errepublikazaleentzat armak zeroatzen. Agudo, *Canarias* gurutzaontzia *Gipuzkoaren* aurka ari zen bitartean, *Bizkaia* Bermeoraino eroan zuen. Horrela berreskuratu ziren ontzia eta armak.

MOMENTURIK GAITZENAK. Atzetik zetozen ontziek ere *Canarias* topatu zuten berehala. Lehenik, *Galdamesengana* hurreratu eta gelditzeko agindu zion ontzi frankistak. *Galdames* ez zen gelditu eta *Canariasek*, beste ezer barik, istriborrean ipini eta 120 milimetroko kanoiez hainbat tiro egin zizkion. 15:00ak inguru ziren. Lau inpaktu hartu zituen eta bost bidaiari hil ziren. Kalte handiagoak saihesteko, merkantzia-ontziko kapitainak makinak gelditzeko agindu zuen. Bitartean, *Nabarraren* komandantea zen Enrique Morenok bere ofizialak batu zituen zubian, errenditu baino lehen ontzia bertan hondoratzeko prest zegoela jakinarazteko. Hala, metraila-printza batek eragin zuen *Nabarrako* lehen hildakoa; geroago, zubian jo zuen zuzeneko inpaktu batek lemaria hil eta bigarren ofiziala larri zauritu zituen. Ordubete baino gehiagoz, itsaskiaz baliatuz, *Nabarrak* borrokari eutsi zion, eta *Canarias* itzuri egitea lortu ere bai, 203 milimetroko tiro batek makina-gelan jo eta makinari denak hil zituen arte. Orduantxe zendu zen Manuel Cajigas getxoztarra. *Nabarrak*, nork gidatu ez zeukala, hondamena zeukan aurrean; tripulatazaileek ontzia lagatzea erabaki arte. Komandanteak, lehen ofizialak eta beste batzuek gurago izan zuten ontzian bertan geratu eta horregaz batera hondora joatea; 49 tripulatazaileetatik hogeik bakarrik lortu zuten salbamendu-txalupetara iristea, beste batzuk ahaleginean ito ziren.

Donostia Frantziar kostalderantz abiatu zen eta Arcachonen sartu zen martxoaren 6ko goizaldean. Bitartean, *Canarias* arduratu zen naufragoak jasotzeaz, eta lana amaitu eta gero leherketa izugarri bat gertatu zen *Nabarran*; ontzia hondoratu egin zen. *Canarias*, orduan, *Galdames* ontziarengana abiatu zen eta Pasaiara joateko agindu zion.

Canariasek atxilotu zituen *Nabarraren* hogeit hamar marinela hilabete batzuk geroago epaitu zituzten eta heriotza-zigorra ipini zieten, baina gurutzaontzi frankistako komandanteak Francoaren aurrean egindako zuzeneko interbentzioari esker, haien-



Aurten Gorlizen egin du ekitaldia Oroilorek; urte bakoitzean herri bat aukeratzen dute. HODEI TORRES

Memoria kolektiboan gorde beharrekoa

Plentziako, Barrikako, Gorlizko eta Lemoizko ikerketa-talde legez jaio zen Oroilore; 2014ko apirilaren 14an egin zuten aurkezpena. Euren iritziz, «1936ko kolpe militarrean, gerran eta diktaduran jazotakoa ahaztuta eduki dugu. Uste dugu oraina ulertzeko iragana ezagutzeko beharra dagoela, eta oso garrantzitsua dela horrelakorik berriro ez gertatzeko».

tzako indultua lortu zuen; 1938ko azaroaren 30ean aske utzi zituzten, erakutsitako ausardiaren aitortza moduan. *Galdames* merkantzia-ontziko marinelek eta pasaiariek, oster, espetxealdi luzea jasan behar izan zuten, eta baten bat fusilatu ere egin zuten.

GARAIPEN MORALA. Matxitxakoko porrot militarra garaipen moral handia bihurtu zen. Egunkariak emandako xehetasunek indartuta, *Canarias* handiaren aurka euskal ontzi txikiak erakutsi zuten adorea ekintza gogoangarrien zerrenda idatzita gelditu zen. Hildako marinelen omenezko ekitaldiak izan ziren; are gehiago, urte horretako Aberri Eguna Euskal Marinelen omenezkoa izan zen. Egun horretan jausitako oroimenez, erbesteko Eusko Jaurlaritzak Itxas Gudarien Eguna antolatu zuen 1977an, eta oraindik ere ospatzen dute Bermeon martxoko lehenengo domekan. ◀



Ez da giro

GERMAN KORTABARRÍA IGARTUA

Emakume kontuak, edo ez?

Gizon izateak sortu dizkien arazoez galdetu die *La Marea* aldizkariak hainbat gizaseme ezaguni. Ezustekorik ez: ez dute inoiz bortxatuak izateko beldurrik izan, ez dute sexu-eraso edo jazarpenik jasan, ez dute gizon izateagatik eragozpen edo bereizkeriarik pairatu lan edo bizi jardunean... Emakumeek *Me Too* (niri ere bai) zioten lekuan, gizakumeek *Me Neither* (niri ere ez) diote.

«Zeurez dakizuna baino ez dakizu», idatzi zuen poetak; agian horregatik egiten zaizkigu gizonezkooi hain besterenak emakumeen bizipen asko.

Fokua eredu patriarkalean dugun erosotasun konparatibotik harago zabaltzen dugunean, konturatzen gara kapitalismo basatia ezartzen ari zaigun ereduaren zein gizonen kalterako dela: natura eta pertsonak neurri gabe ustiatzen ditu, gutxi batzuen aberastea eta gehienien pobretzea dakar, denbora eta indarrak inorentzat gainbalioa sortzen xahutzera behartzen gaitu. Ezinbestekoa dugu bestelako eredu (natura errespetatu, bizitza zaindu eta ekonomia pertsonen neurrira doitu duena) biziraupen duina ahalbidetzeko. Nago eredu berri horren alde konprometitzen garen heinean, gero eta geureago egingo ditugula inoiz emakumeen kontutzat hartu genituen aldarrikapenak.

GETXO | Sarri eta Ormaza erreka

Errekak babestu guran

Hiri-errekak katalogatu eta gordetzeko eskatu diote Getxoko sei elkartek URARI. Sarri erreka

IKER RINCON MORENO · UNAI BREA ▶

Andra Mari inguruko Gobela ibaiaren isurkide gehienak «mehatxu» daudela salatu dute hainbat auzokidek, ofizialki aitortuta ez daudelako. Otsailaren 25ean Algortako Sarri erreka inguruak garbitu eta zinta zuri-gorritz mugatu zituzten, bertatik igarotzen direnei erreka non dagoen adierazteko eta «urbanizazio-asmoei sor dezaketen arriskua» salatzeko. Modu berean, Sarri eta Ormaza erreketan oraindino dauden zatiak katalogatu eta gordetzeko eskatu diote URA Uraren Euskal Agentziari udalerriko sei elkartek. Azaldu dutenez, Gobelaren isurkide bi horien ibilbide gehiena estali eta hodian bitartez bideratu ditu Udalak azken hamarkadotan. Hori dela eta, existitzen diren jatorrizko zatiak babesteko eskatu diote URARI, agiri baten bitartez. Ekintzaileen berbetan, historikoki inguruko jendeak ezagutzen dituzten errekek dira Ormaza eta Sarri; hala ere, ez daude dokumentazio ofizialean jasota. Getxoko 1923ko Hirigintza Antolamendu Plan Orokorrean aurkitu dute aipamenik berriena, «eta horrek kezkatzen gaitu». Azaldu dutenez, Andra Mari ingurutik Gobelara isurtzen diren erreketatik bakar baten existentzia dago ofizialki aitortuta: Kandelu.

Gaur egun martxan dauden zenbait erakuntza-proiektu Sarriri eta Ormazari mehatxu egiten dietela gaineratu dute, barbarako Venancios eta Ormaza exekuzio-unitateak, hurrenez hurren. URARI egindako eskarian azaldu dutenez, inguruko herritarrek hainbat espezie dauzkate identifikatuta erreka toetan, «kaskallu» izeneko arrainak eta ain-



Sarri erreka inguruak garbitu dute hainbat auzokidek. HODEI TORRES

Gobela ibaiaren sustengoa

Ekintzaileen arabera, mota horretako errekek bakarrik eutsi diezaiokete Gobelaren jatorrizko emariari eta egoera ekologiko egokiari.

girak, esaterako. Bestalde, gaineratu dute isurkide horiei esker eutsi diezaiokela Gobelaren jatorrizko ibilbidea izan zenak, emariari eta egoera ekologiko egokiari dagokienez. Getxoko Udalak ubide horiekiko daukan jarrera kritikatu dute sei elkarteek: «Horiek irauteko sentiberatasunik eta interesik ez dago, eta horrek kezkatzen gaitu».

«EURIA BIRBIDERATZEKO HODIAK». EH Bil-duk Hirigintza-batzordean egindako galderari erantzunez, udal-arduradunek adierazi dute ur-emari iraunkorra egon arren ez dagoela iturbururik ezta errekarik ere: «Bi hodi daude, euri-ura birbideratzeko aspaldi Foru Aldundiak jarri zituenak, Ibetasetik errepide osteko ortuetaraino». Koalizio abertzaleak zalantzan ipini du azalpen hori. ◀

Ezagutu saitzazu!!!

Yes

Kalitatea ERASMUS+

Innovación

Desde 1983

Algorta

BAI

Auzolana

Berrikuntza

KIVA

Oui

Areeta

Leioa

Berango

Sopela

Guarderia

Justizia

Enkateko

Enkateko

Zabaketa kooperatiboa

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

SOPELA | Udal-aurrekontuen onarpena

Alderdien arteko harremanak, gero eta tirabiratsuago

Orain Sopelagaz lortutako akordioari esker, 2018ko udal-aurrekontuak aurrera atera zituen EAJren eta PSE-EEren gobernu-taldeak; oposizioan dauden alderdien artean ezinegona eragin du hitzarmen horrek.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Aurtengo udal-aurrekontuak aurrera ateratzeko, Orain Sopelak EAJren eta PSE-EEren gobernu-taldeagaz akordiora heldu izanak hautsak harrotu ditu oposizioiko gainerako alderdi politikoen artean. EH Bilduk azaldu duenez, jeltkideak edo sozialistak ez ziren zinegotzi denek «ezezko biribila» eman zieten diru-kontuei, abenduan. Otsailaren 19an egindako ez-ohiko osoko bilkuran, ostera, 16,3 milioi euroko aurrekontuak onartu zituen Udalbatzak; Orain Sopelako ordezkari bakarra den Juantxu del Vigogaz hitzartuta zeuzkan diru-kontuak EAJko Gontzal Hermosilla buru duen Udal-gobernuak. Hala ere, EH Bilduko bozeroalea den Guillermo Vioeren berbetan, alderdi horrek aurkeztutako proposamenak «ez dio ezelako legitimitaterik» ematen aurrekontu proiektuari. Bestalde, jarraitu duenez, «abenduan gardentasun-eza kritikatu genuen; orain, obskurantismoa salatu beharrean gaude». Izan ere, ordezkari abertzalearen arabera, Orain Sopelak, EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako zuzenketa «udalbatzarraren bertan» jaso omen zuten EH Bilduko eta Denok Batera elledunek, baita alderdirik ez daukan Manuela Ruiz Vivanco zinegotziak ere. Are gehiago, Ogasun Batzordeko otsailaren 12ko ezohiko bilkuran, aurrekontuak bozkatzeko udal-batzar bat deitzearen kontra agertu ziren oposizioiko alderdi denak Orain Sopela izan ezik: «Lortutako akordioaren txostenik ez geneukan», aipatu du Viok. Hala ere, ezohiko osoko bilkura egin zuten diru-kontuak onartzeko.

ZAURI ZAHARRAK. Orain Sopela alderdi politikoaren jokabideak gaur egun udalerrian Ahal Duguren «hiru arimen» arteko zauriak ireki ditu berriro. Pablo Iglesiasen talde politikoko ordezkariak zirela zioten alderdi bi aurkeztu ziren udal-hauteskundeetara: Denok Batera eta Orain Sopela. Azken horrek



Aurrekontuen gaineko eztabaidak tirabira eragin du oposizioiko alderdien artean.

Zentsura-mozioa ez dute eztabaidatu

Otsailaren 22ko ohiko udal-batzarrera begira, Gontzal Hermosillaren kontrako zentsura-mozioa aurkeztu zuen Denok Batera alderdiak; EH Bilduko Guillermo Vio ipini gura zuten alkate. Baina sinadura nahikorik ez zegoenez, ez zen eztabaidatu. EH Bilduk publikoki eskertu zuen eurenganako konfiantza; baina, haien ustez, «zentsura-mozio bat aurkezteko, aurretiaz alderdien artean adostasunak egon behar dira».

ordezkari bat lortu zuen: Juantxu del Vigo. Eta DBek bi: Jon Gerredia eta Fernando Hurtado. Bere burua Sopelako Ahal Duguren bozeroaletzat daukan Manuela Ruiz Vivancok ordezkatu zuen Hurtado, baina hala ere Denok Batera alderdian sartzeari uko egin zion.

BERMEA. Aurrekontuen hitzarmenaren ostean, Ruiz Vivancok izenpetutako oharra plazaratu du Sopelako Ahal Duguk: besteak beste EAJk, PSE-EEK eta Orainek aurkeztutako aurrekontuak ez dituela onartzen adierazi du alderdiak. Are gehiago, euren berbetan, Del Vigo Euskadiko Ahal Duguren zinegotzien taldetik «bota» zutela gaineratu dute: «Orainek hartzen dituen erabakiak ez daukate zerikusirik Ahal Dugugaz». Del Vigo ez dago ados horregaz: «Besteak bezala abstenitu egin nintzen aurrekontuen ezohiko bilkuran; zaila egiten zitzaidan Sopelako historia osoko diru-kontu sozialenen kontra bozkatzea. Gainera, Uribe Kostako Ahal Duguren bermea dute nire erabakiek». Tirabirak ez dauka etenik oraingoz. ◀



ander deuna
i k a s t o l a



Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

URIBE KOSTA | Euskaldunak aktibatzen

Euskaraldia hedatzen dabil

Datorren azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza-erronka ipini die euskalgintzak euskaltzaleei, euskal hiztunak aktibatze eta erabilera-inertziak euskararen alde aldatzeko. Data horietan, Euskaraldia ekimenean parte hartzeko gonbita egin diete, alegia, «11 egun euskaraz» jardueran murgiltzeko aukera eman diete. Norbanakoaren ahalegina izango da «ahobizi» edo «belarriprest» rola hartu eta euskaldunakaz euskaraz berba egin edo gure hizkuntzan aditzeko prest daudela azaltzea, hurrenez hurren. Euskaraldiak dei egin die herrietako euskalgintzako eragile, udal eta bestelako entitateei elkarlanean jardun eta Euskal Herri osoan aldi berean egingo den euskararen aktibaziorako egitasmoan parte hartzeko. Horretarako epea datorren apirilaren 8a ipini dute. Hiru udalerri eman dute izena oraingo: Erandio, Getxok eta Leioak.

BATZORDEA ERATZEKO PREST. Leioari dagokionez, Euskaraldia antolatze batordea martxan ipintzen hasi gura dute eta deialdia zabaldu dute, martxoaren 15erako, eguenerako. Hitzordua Kultur Leioan ipini dute, 19:00etan; elkartzeko aukera eman gura diete herritar denei baina «berezik, Konpromiso liburuan parte hartu zuten taldeei eta eragileei». Erandion ere prestaketa-lanetan dabilta eta Udalak partida bat gorde du aurrekontuetan, euskalgintzagaz batera Euskaraldian «herri moduan parte hartzea erabaki» ondoren. Plentzian ere aurrekontu-zirriborroan sartu dute partida. Bestalde, Getxon daborduko jendaurreko hiru batzar egin dituzte, getxoztarrek.eus ataria martxan ipini dute, eta maiatzaren 24an Euskaraldiaren lehenengo entrenamendua egitea proposatu dute: «Getxo 24 ordu euskaraz» hizkuntza-erriketa.



Erandion abenduaren 3an zabaldu zen ekimena.

ERANDIO | Landa-bide publikoak

Pausoka, lurra bizirik mantentzen saiatzeko



Axpurutik pasatzen dira antzinako hainbat bide. HODEI TORRES

Herri Bideak Kate Barik elkarteak berbaldia emango du datorren martitzenean, hilaren 13an, Astrabuduan. Josu Murueta kultur etxean azalduko dituzte zelan erabili eta goza daitezkeen inguruko bide publikoak, 19:00etan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Astrabuduko berbaldia izango da elkarteak egingo duen bigarrena, Mari Ángeles Delgado Herri Bideak Kate Barik elkarteak presidenteak azaldu duenez. Aurretik, Erandiogoikoan izan ziren eta etorkizunean Alzaga bisitatuko dute, bertako bideen berri emateko.

Berbaldiak antolatzen dabilta «bide publikoei buruz ezagutza falta handia dagoelako, eta batez ere, landa-bideen gainean», azpimarratu du Delgadok: «Denok dakigu zer den bide bat, baina ez daukagu oso argi leku batetik bestera joan ahal izateaz gainera, bideek bizitza handia daukatela, ondare kultural handia dagoela ibilbide horietan». Norabide horretan joan gura dute, auzotarrak informatzeko ekimen horren bidez. Hala, bideakaz batera, ondarearen eta inguru denaren ezagutza zabaldu nahi dute, barbarako ingurumena, fauna eta flora, arkitektura, memoria historikoa, ohiturak, ogibideak eta abar: «Zer landatzen zen, zertarako balio zuten landare horiek, zer ohitura zeuzkaten eta

Denboraren aurkako gerra

Erandioko landa-bideen erdia inguru sastrakek janda daude: «Ez dira erabiltzen ez ditugulako ezagutzen», argitu du Delgadok. Joan den abenduan, Herri Bideak Kate Barik elkarteak ekin zion bide-zatiak irekitzeari, auzolanean, Txantelenabidean, Axpurutik gertu: «200 bat metro zabaldu genituen. Ezin izan genuen gehiago egin, nahiko itxita zegoelako». Axpuru ondoan, Kozkoetxe errepidean hasi ziren, baina oraindik ez dago guztiz irekita beheraino. Nabarmendu duenez, naturak itxitako bideak zabaltzeagatik «inork ezin digu ezer esan, horiek bide publikoak dira eta».

zelan jantzen ziren erromeria egiten zutenean, zelan zihoazen baserri batetik bestera musika jotzen eta auzokideak banan-banan batzen gero denak batera erromeriara joateko...». Horrelakoak azalduko dituzte Josu Muruetan. Herri Bideak Kate Barik elkartearen ustean, «bide bat galtzea ibilbide bat desagertzea baino askoz gehiago da». Eta helburuak zein diren argi dauka Delgadok: «Guk xendazetasuna beste modu batean ulertzen dugu, landa-bideetatik, naturatik, lurretik... eta ez asfaltotik». Izan ere, «aberastasun handia» dago bide horien inguruan; «ez dugu galdu behar», ohartarazi du erandioztarrak.

JAKITURIA-TRUKEA BERBALDIETAN. Erandioko Udalaren bide-inventarioa osatzen parte hartu zuen elkarteak, eta beste talde batzuek bezala alegazioak aurkeztu zituen. «Orain daukaguna daukagu, ondo ala txarto egon», dio elkartekideak, atsekabetuta. Euren ekimenetan hori da zabaltzen dutena, jendeak jakin dezan landa-bide horiek udal-ondarearen barruan daudela eta «denok erabil ditzakegula: denak ez daude asfaltatuta, landaxendak oraindik badaude eta landa zeharka dezakegu lurretik ibiltzen». Halere, bideetako batzuk usurpatuta daude, gizaki batzuek itxi dituztelako. Bestalde, eurek ere asko ikasten dute berbaldietan: «Auzokideetako batzuek erabili izan dituzte xenda horiek eta ondo ezagutzen dituzte antzinako kontuak: jakituria-iturri dira». ◀

Itsasoko bizitzaren alde haginka

Joan den astean Sea Shepherd talde ekologistaren *Bob Barker* ontzia porturatu zen Getxon. Afrikan dabilzan legez kontrako arrantza-ontziei aurre egitera zihoazela geldialdia egin zuten gurean, baita HIRUKAri ateak ireki ere. Itsas fauna babesteko ekintza zuzena erabiltzeagatik dira ezagunak mundu osoan.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO • UNAI BREA ARGAZKIAK: HODEI TORRES ►



Itsas fauna babesteko helburuaz, munduko itsaso eta ozeanoak zelatatzen dituzte Sea Shepherd Conservation Society (SSCS) nazioarteko talde ekologistaren ontziek. Itsasoko animalien kontra egiten diren delitu denak gelditzea da euren helburua, eta eraso horiei aurre egiteko moduan daude itzalpeko zaindari ezagunak, biolentziarik gabeko ekintza zuzenak erabiltzen baitituzte delituak geldiarazteko. «Itsasoko bizia babesten dugu legea betetzen ez den lekuetan», azaldu du talde ekologistako kideetako batek. Berbarako, Japoniako balea-ontziek Antartidako ur babestuetan baleak ez-kutuan arrantzatu izan dituztenean, askotariko sabotajeak egin dituzte ekologistek horien jarduna galarazteko: kirats-bonbak jaurti, bidea oztopatu, balearen eta ontziaren artean ipini, abordatzeak egin...

Itsasoko artzainak
Sea Shepherd Conservation
Society talde ekologistak
munduko itsasoak
zelatatzen ditu itsasoko
fauna babesteko. Guztira
12 ontzi dituzte
zeregin horretarako.

Paul Watson kapitainak (Kanada, 1950) sortu zuen gobernu kanpoko erakunde hau 1977an, itsasoko animaliak babesteko jardunean pauso bat harago eman behar zelakoan Greenpeace taldea utzi ondoren. Azken horien estrategia informazioa ematean oinarritzen da, eta publizitatean gastatzen dute diru asko. Sea Shepherd-ek, aldiz, legez kanpoko arrantza eragozteko «egin beharrekoa» egiten dute: «Biolentziarik gabeko ekintza zuzenak egiten ditugu; erdian jarri behar bagara, jartzen gara. Gainera, ahal dugun neurrian arazo horien nondik norakoak azaleratzen ditugu». Itsasoan aurkitzen dituzten animalien gaineko informazioa ere batzen dute, itsas faunaren nondik norakoak hobeto ezagutu ahal izateko.

BOB BARKER, GETXORA. Sea Shepherd-ek hamabi ontzi ditu guztira gaur egun, munduko hainbat lekutan lanean, berbarako Australian, AEBetan, Afrikako mendebaldean eta ekialdean, kostaldeak zelatatzen. Horietatik denetatik, *Bob Barker* izeneko da esanguratsuenetakoa, eta joan den egunean, hilaren 1ean, porturatu zen Getxoko gurutze-ontzien terminalean, Bremengo portuan (Alemania) geldialdi teknikoa egin eta Afrikako mendebaldera bueltatu bitartean.

Bob Barker aurkezle estatubatuarrek emandako bost milioi dolarreko dohaintzari esker, izotz artean nabigatzeko egokia den Norvegiako 1950eko balea-ontzia erosi zuten Sea Shepherd-ek, eta euren beharrianetara egokitu, 2010ean. Bigarren krosko bat gehitu behar izan zioten horri, ekintza zuzenak egin ahal izateko; orduetik, hamaika misiotan ibilitakoa da. Esanguratsuenak da Antartidan modu ilegalean zebilen *Thunder* izeneko arrantza-ontzi piratari jarraitu ziotenekoa, 20.000 kilometroz. Interpolek hura geldiarazteko agindua emana zeukan, eta



Bob Barker horren atzetik ibili zen 110 egunez, pirata-ontzi-ko tripulazioak ontzia «nahita» hondoratu zuen arte, Afrikako ekialdeko itsasoan.

Joan den azaroaren 24an Zarautzeko hondartzan lehorreratu zen balea-kume bat salbatu zuten sei surflariak omendu zituen Sea Shepherddek martxoaren 2an, Bilboko Itsas Museoan. «Euskaldunok erakutsi genion munduari baleak ehizatzen, orain horiek babesten lehenengoak izatea dagokigu», azaldu du Eduardo Araujo, talde ekologistak Euskal Herrian dauzkan boluntarioetako batek. Aitzakia horregaz, *Bob Barker* aste-akabu osoa egon da Getxoko portuan, eta 9.000 herritar inguruk ontzi horren nondik norakoak ezagutzeko aukera eduki dute, talde ekologistak antolatutako bisita gidatuei esker. Ontzira hurreratu bezain laster, brankan margotuta dagoen hortzez beteriko ahoak arreta piztu dio ibiltari askori, baita itsasoko haizeak dantzan ipintzen duen bandera pirata beltzak ere.

LEGEZ KANPOKO ONTZIEN BILA. Euskal Herritik Afrika mendebaldeko itsasoetara joan da orain *Bob Barker* ontziko taldea, legez kanpo arrantzan dabiltzan ontzien jarduera oztopatzeko asmoz. Nagusiki bertako gobernuak laguntza ematen saiatzen dira: «Haiek baliabide gutxi edukitzen dute patruilan ibiltzeko, eta guk ontzia eskaintzen diegu plataforma modura». Labur esateko, ekintzaileek aurkitzen dute legez kanpo dabilen arrantza-ontzia; behin harengana ailegatuta, gainerakoa herrialde horretako funtzionarioek egiten dute: normalean, arrantzaleak geldiarazi eta arduradunak atxilotu.

Legez kanpo jarduten duten ontziak gehiegi direla dio Araujok, arrantza-kuotak gairatzen dituzte askok, legez kanpoko tresneria erabiltzen dute beste horrenbestek eta baimenik gabe



9.000 pertsona baino gehiagok bisitatu dute ontzia

Bob Barker Getxon porturatuta egon den bitartean, Sea Shepherdeko kideek bisita gidatuak egin dituzte, martxoaren 3an eta 4an. Guztira, 9.000 lagun baino gehiagok gerturatu ziren portura ontziaren eta talde ekologistaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzera.

jarduten dutenak ere badaude. Hartzeko baimenik ez daukaten edo babestuta dauden espezieak arrantzatzen dituzten ontziak ere zelatatu dituzte inoiz, eta lan baldintza txarretan aritzen diren arrantza-ontziak aurkitzea ere «oso ohikoa» dela gaineratu du ekintzaileak: «Orain hilabete Tanzania aurrean ontzi txinatar bat harrapatu genuen, 24 pertsonak egiten zuten lo logela bitan».

BALEA-ONTZI JAPONIARRAK ZELATATZEN. Alejandra Gimeno Sea Shepherdeko kideak dioenez, japoniarrak Antartidako baleen santutegira joan ohi dira, ikerketa zientifikoak egingo dituztenaren aitzakiapean, «hala ere, jakin izan dugu ehizatzen duten dena komertziorako dela, eta hori legez kanpoko da». Orain arte ontzi horien atzetik ibili izan da talde ekologista, itsasontzi ezberdinetan, hala nola *Bob Barker*rean; hala ere, kanpaina horiek baztertu behar izan zituzten iaz, gaur egun «oso zaila» delako horiei aurre egitea. Japoniarrek satelite bidezko zaintza darabilte eta talde ekologistako ontzi denak lokalizatuta dituzte, momentu oro, ekintzaileek jakinarazi dutenez. «Antartidan zaila bada ontzi bat aurkitzea, non gauden jakinda are zailagoa izango litzateke». Hori dela eta, itsasoko zaindarien estrategia aldatu behar izan dute. Herritarren dohaintzen bitartez lortzen dute diru dena ekologistek, eta baliabide horiek denak «irabaz ditzakegun batailetara» bideratzea erabaki dute, berbarako Afrikako kostaldeko legez kanpoko arrantza-ontziak geldiaraztera. Horren harira, Gimeno adierazi du orain arte egindako kanpaina denek nolabaiteko arrakasta izan dutela: «Itsasontziak geldiarazi ditugu, kapitainak atxilotzea eragin dugu eta itsas fauna babestea lortu dugu, besteak beste». ◀

Bob Barker-en ekintza esanguratsuetako bi



Thunder arrantza-ontzi piratari jarraituz, 110 egunez eta 20.000 kilometroz

Bob Barker itsasontzia *Thunder* arrantza-ontzi pirata zelatatu eta hari jarraiki ibili zen lau hilabetez; 20.000 kilometro baino gehiago egin zituen haren atzetik. Jarraipena Antartidatik eta Indiako eta Atlantiko ozeanoetan egin zuten, Afrikako mendebaldeko kostaldean arrantza-ontzia hondoratu zen arte. Sea Shepherdeko ekintzaileek tripulazioa erreskatatu eta kapitaina justiziaren esku utzi zuten, Interpolek ontzi horren kontrako agindua emana baitzuen. Ekintzaileen arabera, *Thunder* babestutako arrainak arrantzatzen ibili zen, eta tripulazioak nahita hondoratu zuen ontzia.



Balea-ontzi japoniarren kontra, legez kanpoko ehiza oztopatzeko

Japoniako balea-ontzien legez kanpoko jarduna oztopatzeko askotariko kanpainetan parte hartu du *Bob Barker*rek. 2010ean *Yūshin Maru* ontziaren kontra jo zuen eta 2011n eta 2012an *Nisshin Maru* ontzia blokeatu zuen, haren arrantza-denboraldia nabarmen laburtuz. 2013an, *Nisshin Maru* *Bob Barker*ren kontra talka egin zuen, horren zenbait antena apurtuz, besteak beste.

WYANDA LUBLINK | *Bob Barker-eko kapitaina*

«Bada garaia gobernuak ozeanoen egoera hobetzeko»

Holandarra da, baina lehorreko bizilekua Australian dauka Sea Shepherdeko ia ontzi denetan goi-mailako ofizial lana egin duen 46 urteko emakume honek. Aurretik, Herbehereetako ontzidian eman zuen hamarkada bat. Bob Barker-eko aginte-gunean erantzun die gure galderei.

Zergatik erabaki zenuen Sea Shepherdeko kide bihurtzea? Animaliei laguntzea maite dudalako, niretzat pasioa da. Lehenago ere egin izan dut, Australiako talde batean, baina lehorrean. Itsasoan egotea ere asko gustatzen zait, eta Sea Shepherd-en berri eduki nuenean, pentsatu nuen nabigatzen neukan esperientziagaz taldeari ekarpen polita egin ahal izango niola.

Bizitza guztiz aldatuko zitzazun, ezta? Hala da. Herbehereetako ontzidian egon nintzenean, esaterako, oso ondo ordaindutako lana neukan, baina hura lanbide hutsa besterik ez zen. Sea Shepherd-en lan egiteak guztiz aldatu du nire pentsamoldea, nigan dabilzan ontziko kide gehienek ez dute diru-ordainik jasotzen [oso lan espezializatua daukatenean baino ez dute zer edo zer kobratzen, tartean Lublink berak], gura dutelako daude hemen. Ontzi komertzial bateko marinelek ez daukate euren lanarekiko hainbesteko pasioa.

Legea betetzen ez den lekuetara joaten zarete. Bidegabekotzat daukazuen legeak aldatzen ere ahalegintzen zarete? Bai. Gure kanpaina gehienak egiteko dauzkagun arrazoiak bat izaten da goazen lekuan legerik ez dagoela edo dagoena ez dela behar bezain ona eta aldatu egin behar dela. Gabonen ibili izan gara denbora luzez, esate baterako; oso herrialde ona da kontserbazioaren eremuan, nire ustez Afrikako onenetakoa, baina oraindik gauza asko hobetu ditzakete. Eurek eskatuta, hango patruilei laguntzen diegu, eta behar duten guztia ematen diegu euren legedia alda dezaten. Gobernuak konturatu egin behar dira badela garaia ozeanoen egoera hobetze aldera zer edo zer egiteko, konturatu egin behar dira legeak aldatu behar dituztela edo, zenbait kasutan, legeak sortu.

900.000 €

hartu zituen Sea Shepherdek, joan den otsailean, Holandako Loteria Nazionalak egin zion dohaintzari esker. Guztira 16,5 milioi jaso ditu talde ekologistak bide horretatik orain arte. Holandar Loteria Nazionalak ongintzako elkarteei ematen die irabazien erdia, eta 2022ra arte dauka Sea Shepherdegaz akordioa.

Ez duzue publizitatean beste talde ekologista handi batzuek bezain beste inbertitzen, ez zarete hain ezagunak... Sea Shepherd 1977an sortu zuen Paul Watsonek, 1971n Greenpeace sortu zutenetako batek. Sei urte geroago erabaki zuen Greenpeace egiten zebilen lana ez zela benetan berak gura zuena. Horregatik ipini zuen martxan Sea Shepherd, ekintza zuzen gehiago egingo zuen elkarte bat gura zuelako, benetan egon behar zen lekuan egongo zena. Greenpeacek ontziak dauzka, baina ez guk beste. Oso onak dira funtsak lortzen eta mezuak zabaltzen, baina... Guk ere eskuratzen dugu dirua, noski, baina gure diru guztia ontzietarako da, eta irabaz ditzakegula seguru gauden kanpainetarako. Gure erakundea desberdina da; baliteke guk ontzi gehiago edukitzea baina askoz txikiagoak gara eta diru gutxiago daukagu, hala ere uste dut beste inork baino emaitza gehiago lortzen dugula.

Dena den, publizitate gehiago ez litzateke ona izango egoera erroten aldatzen saiatzeko? Uste dut zer edo zer aldatu dela Sea Shepherd-en daroatzadan ia sei urteetan. Azken boladan dohaintza asko lortu dugu; berbarako, dirutza eman digu Holandako Loteria Nazionalak, eta horri esker ontzi berri oso bat erosi ahal izan dugu. Iruditzen zait ospetsuago bihurtu garela, sare sozialetan oso presentzia handia daukagu, eta zenbat kide garen zehazki jakitea zaila den arren, zalantza barik esan daiteke milaka garelako mundu osoan. Gauzak aldatuz doaz, baina aldaketak denbora behar du.

Pentsatu duzue inoiz zuen bizitza arriskuan zegoela? Kanpaina batzuetan zeharo kezkatu izan naiz nire ontzikideen segurtasuna dela eta, aurrean geneukana gogor ahalegindu delako gu ikaratzen. Baina hamar urte eman nituen Herbehereetako ontzidian, mota guztietako liskarrak bizi izan ditut, eta ez naiz erraz beldurtzen. ◀



Eskoziako musika tradizionalaz gozatzeko aukera



Ali Bain and Phil Cunningham. BRYAN LEDGARD

Antzerkia

Martxoak 9, barikua
Kontularien Kluba
19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Alicia
20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Kabia taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

Martxoak 11, domeka
La gallina de los huevos de oro
18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Zum Zum Teatro taldeagaz. Familia osoarentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50-5 euro.

Des
19:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Totum taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

Azokak

Martxoak 9 eta 10
Izakinen Amaierako Azoka
Algortako eta Areetako dendak | Getxo
Zapatuan, goizez bakarrik.

Batzarrak

Martxoak 13, martitzena
Aurtengo jaien antolaketa
18:00 | Kultur etxea | Gorkiz
Parte-hartzea libre.

Berbaldiak

Martxoak 13, martitzena
Erandioko bide publikoak erabiltzeari eta gozatzeari buruz
19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Herri Bideak Kate Barik elkartegaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Erakusketak

Martxoaren 18ra arte
Sokatira 2014-2017
Rekalde Aretoa | Bilbo
Barriek 2018. Marta Zelaia urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Martxoaren 24ra arte
Marcas: cuerpos reales
Algortako kultur etxea | Getxo
Amaia Aparicioren argazkiak ikusbide. Barikuetan eta zapatuetan. Sarrera, doan.

Getxo y otras cosas
Algortako kultur etxea | Getxo
José Antonio Arberasen olio-pinturak ikusbide. Barikuetan eta zapatuetan. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Martxoak 13, martitzena
Argazkigintza: natura hila
19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio
Astrabuduko Fotoklubagaz. Gaztelaniaz. Doan.

SOPELA | Folk-doinuak Zapatu honetan, martxoaren 10ean, eskoziar musika tradizionalaren musikaririk onenetariko bi diren Aly Bain-en eta Phil Cunningham-en melodiak entzuteko aukera egongo da, Kurtzio kultur etxean. Bikote horrek esku-soinua eta biolina jotzen daukan maisutasunaz gozatzeko dute entzuleek, 20:00etatik aurrera. Horrez gainera, Xabi Aburruzaga trikitilaria igoko da oholtzara. Glasgow-ko Celtic Connections jaialdian egon ostean, hirukote formatuan aurkeztuko ditu *Keltik* bere azken lanaren abestiak. Sarrerak 12 euroren truke erosi ahal izango dira.

Musika

Martxoak 9, barikua
Conformación de la orquesta sinfónica en el s. XVII
18:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Hitzaldi Musikalak 2018. Sarrera: 3 euro.

Martxoak 11, domeka
Inprobisazio-saioa
18:30 | El Comercio taberna (Areetako) | Getxo
Areetako Andrés Isasi musika-eskolako jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

Txangoak

Martxoak 11, domeka
Luzero lurmuturrera ibilaldia
09:00 | Josu Murueta plaza | Erandio
Astrabu Erandio Ibilbideak taldeagaz. Parte-hartzea libre.

Zinema

Martxoak 9, barikua
Yo no soy Madame Bovary
21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Txineraz, gaztelaniazko azpitoluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

Martxoak 10, zapatua
Operación cacahuete 2
17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Sagu eta Pagu
18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

Detroit
20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Martxoak 11, domeka
Axel, heroi txikia
18:00 | Antzokia | Berango
Umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Martxoak 13, martitzena
Tierra de Dios
20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,5 euro.

Emakumeen Egunaren harira

Berango
Martxoak 9, barikua
16:30 Umeentzako tailerrak, Berangoetako kultur etxean. Doan.
18:00 *Munduko neskak* ipuin-kontaketa saioa, Berangoetako kultur etxeko umeen liburutegian. Euskaraz. Doan.

Martxoak 10, zapatua
19:00 Berangoko emakumeen emanaldia, antzokian. Sarrera, doan.

Martxoak 11, domeka
Berdintasunaren aldeko jaia.
10:30 Kalejira emakumeen elkarteko egoitzatik udal-pilotalekura.
13:00 Adierazpen instituzionalaren irakurketa, Berangoko emakumeen gaineko azterlanaren aurkezpena, dantzaldia Trio Maran taldeagaz, hanburgesa eta karolina solidarioak, eta umeentzako jolasak.

Erandio
Martxoak 9, barikua
17:00 *Cincuenta primaveras* filma, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
18:00 Emakumeen jaia, Alzagako azoka zaharrean. Sarrera, doan.

Martxoak 14, eguaztena
18:00 *Rol-jokoak* ipuin-kontaketa, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Euskaraz. Sarrera, doan.

Getxo
Martxoak 9, barikua
18:00 Bagabiltzaren sortzailea izan zen Satur Abon-i omenaldia, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Doan.

Martxoak 13, martitzena
19:30 *Aprender desaprendiendo para la reconstrucción de la convivencia escolar* mahai-ingurua, Algortako kultur etxean, Villamonte kalean. Gaztelaniaz. Doan.

Leioa
Martxoak 9, barikua
18:00 *El origen del 8 de marzo. Feminismo* berbaldia, Kultur Leioan.
20:30 *Alicia* (Kabia) antzezlan, Kultur Leioan. Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

Plentzia
Martxoaren 23ra arte
Emakumeen begiradak erakusketa, Goñi Portal kultur etxean. Sarrera, doan.

Sopela
Martxoak 11, domeka
19:00 *Soinu magikoak* ekitaldi poetikoa, musikagaz, Kurtzio kultur etxean. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4 euro.

Urduliz
Martxoak 12, astelehena
18:00 *Emakumeen bistaratzea eta aitortza* Urdulizko historian izenburuko liburuaren aurkezpena, kultur etxean. Sarrera, doan.

Emakume errefuxiatuez berbetan



PLENTZIA | Mahai-ingurua Bariku honetan, martxoaren 9an, mahai-ingurua egingo da Danontzat gaztetxean. Feministalde eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteetako kidea den Anabel Sanzek, CEAR Euskadi gobernuz kanpoko erakundeko Beatriz de Lucasek eta Maryam Fathi aktibista kurduak berba egingo dute. Azken horrek Iranetik alde egin behar izan zuen, espetxeratua izateko arriskuan zegoelako. Ekitaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan.

««Sahararrek hemen segitzen dute» esan diogu munduari»



Begoña Beristain eta Jon Salvador atleta erandioztarrak Aljeriatik bueltatu berriak dira. Bertan maila ona erakutsi dute Sahara Maratoian, Saharar Errepublikaren errefuxiatu-kanpamentuetako proban.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Beristain laugarren heldu zen helmugara, hamar kilometroko lasterketan; beteranoen artean lehena izan zen. Salvador, berriz, bigarren geratu zen 42 kilometrokoan. Biek garrantzi handiagoa ematen diote saharar lagunakaz egoteari eta 42 urteko erbestea gogorarazteari, kirol-arloari baino. Gainera, hainbat botika eroan dituzte.

Pozik zaudete Saharako Maratoian lortutako kirol-emaiztengatik? JON SALVADOR: Oso pozik nago, baldintza kaxkarretan joan nintzelako; joan den abenduaren 24an, mutiloi baten aurka kolpe bat hartu eta lesioa izan nuen. Horrek prestaketa osoa hautsi zidan, ia hilabete batez. Bihotzeko ariketak, bizikleta eta eliptikoa egin ahal izan nituen bakarrik. Geroago utzi zidaten 10-15 egunean asfaltoren gainean korrika egiten. Hara joan eta maratoia egiten ausartu nintzen. Basamortuan neukan eskarmentuak eta ondo egiteko gogoak erraztu zidaten bigarren postua lortzen, eta erabat pozik geratu naiz. **BEGOÑA BERISTAIN:** Ni ere pozik nago hamar kilometrokoan lortutako emaitzagaz. Maratoian korrika ez egitearen arantza geratu zait; horretarako entrenatzen ibili bainintzen baina, batzuetan, osasun-kontuek ez digute helburuetara heltzen uzten. Hala, hurrengoan indar gehiagogaz desiratuko dut. Hamar kilometro nahiko gogorak izan ziren. Emaitza ona lortu nuen, nahiz eta hurrengoan hobetzen ahaleginduko naizen.

Lehenengo aldiz, hamazortzi edizioaren ostean, saharar bik irabazi zuten maratoia. B.B.: Oso sinbolikoa izan da 42 urte eusten daramaten urte honetako maratoian gizonezko eta emakumezko saharar banak irabaztea. Aste horretan, beste kontu garrantzitsu batzuk ere gertatu ziren; berbarako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren erabakia [bertan auzitegiak dio Mendebaldeko Sahararen urak ez direla Marokorenak]. Dena batu da eta ospatu egin dute. Nik aukera izan nuen ikusteko [Lehsen Sidahmed Ahmed] sahararraren helmugaratzea. Une oso hunkigarria izan zen: herritarrek ikusi zutenean euretako bat irabaztera zihoala, helmugatik 200 metrora edo, bere ingurura batu ziren, bandera eman zioten eta denak batera sartu ziren helmugan, ohiko oiho sahararrak botatzen zituztela. Oilo-ipurdia ipini zitzaidan ikustean. J.S.: Pozik hartu nuen, norbaitek ni irabaztekotan gurago dudalako sahararra izatea. Festa izan da hemen eta herriak modu oso berezian bizi izan du. Orain arte, munduko hainbat herrialdeetako lagunak irabazi dute; italiarrek, espainiarrek, ingelesek, aljeriarrek... Bazen garaia ospakizun sahararra izateko.

Zelan bizi izan zenuten proba? B.B.: Poztasun handiz eta lehiakortasunaz ere, hirugarren geratu zen emakumea eta biok etengabeko lehian ibili ginen lasterketa osoan. Azkenean, 30 segundoz bera nagusitu zen, baina batzuetan begi-bazterretik begiratzen nion eta beste batzuetan beraren sorbalda ikusten nuen. Hala, emozio handiz bizi izan nuen. Bestalde, hai-

zea erabakigarria izan zen: iaz bero handiagoagaz eta askoz haize gutxiagaz egin nuen korrika, eta aurten haizeak ez dit utzi gura nuen legez lasterketa egiten. Hala, zirraratuta baina baldintzatuta ere egon nintzen. J.S.: Nire kasuan, zuhertasun handiz bizi izan nuen proba. Oso ausart ateratzen nintzen, lasterketa oso azkar ateratzen baita, atletek eta batez ere sahararrek ez dutelako distantzia ondo neurtzen. Lehsen Sidahmed Ahmed Espainian bizi da eta badaki zelan lehiatzen den European. Bera arin ateratzen zen eta ni beragaz irten nintzen. Orduan ikusi nuen bera indartsu zebilela eta 13. edo 14. kilometroan esan nion «jo aurrerantz, nik nire lasterketa egingo dut. Zorte on!». Gehiegi arriskatu zuen, izan ere, dunetako gunearen ostean, 21. kilometrotik 31.era, txarto pasatu zuen, karranpak izan zituen, gero esan zidanez. Ni ere nahiko justu nenbilen indar aldetik eta azkenean distantzia nahikoa ateratzen zidan nagusitu eta lasterketa irabazteko.

Urteak daroatzazue Saharako Maratoira joaten. Zerk egiten du hain berezi? J.S.: Zortzi alditan joan naiz, 2003tik hona. Atleta naiz, 32 urte daroatzat lehiatzen, eta aldaketa bat ikusi dut neure buruarengan. Lehenengo urteetan, niretzat oso garrantzitsua zen lasterketa, ondo egitea eta postu ona lortzea. Apurka-apurka, fandangoaren buelta etorri da, eta gaur egun sendiekiko elkarbizitza lasterketa bezain garrantzitsua da, edo gehiago. Urteetako lotura daukat sendi batez, beti joaten naiz berberarengana. Aurten beste pauso bat emango dut eta euren 9 urteko alaba udak gugaz egoten hasiko da, trabarik ez badago. Dena ondo bidean, etorkizunean ikasketak eman ahal izango genizkioke; saharar herriak hori eta gehiago merezi du. B.B.: Niretzat lasterketari berezitasuna ematen diona da daukan elkartasun-osagaia. Proba ez da edozelakoa, basamortuari aurre egin behar diozulako eta maratoiak beti direlako bereziak; arriskua hartzen duzu maratoiaren aurka eta ohituta ez zauden luraren gogortasunagatik. Baina, batez ere, berezi egiten duena da zenbat elkartasun-ekimen dagoen eta zelan dagoen hainbeste jende saharar herrian laguntzeko prest. Gainera, aukera ematen du zuzenean ezagutzeko zelan bizi diren, zer sentitzen duten, zer den gura dutena, zer eskatzen dioten etorkizunari eta zelan ateratzen nahi duten kanpamentu horietatik 42 urte pasatu eta gero. Egunerokotasunean erosotasun handiagoa eduki arren, euren herrira bueltatzea desiratzen segitzen dute. Dena atzean uzteko prest daude, alde egin behar ez zuten herrialdera bueltatzeko. Horrek egiten du berezi.

Jonek esan duenez, lehiatu ez ezik bertako familiakaz egoteko aukera izan duzue. Zelakoa izan da harremana zure kasuan, Begoña? B.B.: Bada, nik aurten familiaz aldatu dut, Jonegaz joan nintzelako, eta bera urtero joaten den sendiarengana joan nintzen ni ere bai. Bertako familiek daukatena ematen dizute, oso abegikorak dira. Gustatzen zaie zuk euren egoera ezagutzea, azken finean eurek bizi dutenaren bozgorailuak garelako. Guri kontatzen digute guk ere konta dezagun. Harrema-



Basamortu bete kontakizun

«Umeak batu zitzaizkigun, gauzak eskatu zizkiguten, erditik gurutzatu ziren... Oso zaila izan zen amaitzea»

«Sahararren alderdi batek ez du ezer egin gura, hau ez delako euren lurraldea eta ez dutelako eroso ipini nahi»

«Badiote gerra egotekotan munduko saharar bakoitza bueltatuko dela, bere luraren alde borrokatzera»

BEGOÑA BERISTAIN
ATLETA ETA KAZETARIA

«Tragikoa da, gaixotasunak modu arriskutsuan larritzen direlako bertan, batez ere ume txikien artean»

«Kanpamentuetara joan ez naizen urte bakoitza galdu dudana urte bat da niretzat, tristuraz utzi nauena»

JON SALVADOR
ATLETA ETA ERTZAINA

na oso ona da, asko zaindu gaituzte, onena eman digute, daukaten onena guretzat kozinatu dute; elkarbizitza oso berezia izan da, batez ere elkarbizitza- eta te-ordu luzeengatik. Tea ez da soilik te edatea, berba egiteko ipintzen da, eurek kontatzeko eta zuk konta diezaiezun. Familiak Saharara bueltatzea motibatzen gaituzten loturak dira.

Elkartasun-laguntza ere eroan duzue. Pozik geratu zarete egindako ekarpenagaz? B.B.: Botikak eroan ditut, Euskal Eskola Publikoaren azken festan ateratako etekinaren zati bat bideratu zelako ni joan naizen elkartera, Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabera. Farmamundiri hartu genizkion medikamentuak, ohiko farmazietan baino bost bider merkeago saltzen duen sendagaien GKEri. Botikak Saharako Osasun Ministerioan entregatu nituen, euren beharren arabera bana ditzaten. Pozik nago, medikamentuak eroan ditugulako eta lasterketan egon garelako, baina niretzat garrantzitsua da saharar herria ikusgarri egin dugula, jendeak ez dezan ahaztu bertan zer dagoen. Ez dadila izan ahaztutako beste gatazka horietako bat. Garrantzitsua izan da kanpamentuetara joan izana munduari esateko: «Sahararrek hemen segitzen dute».

42 urteren ostean zer konponbide ikusten diozue kanpamentuetako egoerari? J.S.: Bihotzez esango dut: oso zaila. Urtez urte, ahalegintzen dira lursail horretako baldintza politikoak, sozialak, klimatologikoak eta hezkuntza- eta osasun-mailakoak hobetzen, bizi ahal izan daitezten. Hala, elektrizitatea, ura, janaria... eman diete. Baina oxala aurtengoa izango balitz nire azken maratonia. Gustatuko litzaidake datorren urtean entzutea «maratonia bertan behera geratu da jende hau bere lurraldean bizitzen dagoelako». Baina egoera oso zail ikusten dut eta esan dezaket urte mordoak geratzen zaizkiela oraindino kanpaleketan egoteko. Zoritzarrez. B.B.: Gaur egun ez diot konponbiderik ikusten. Guk egiaztatu ahal izan dugu gizon eta emakume sahararrek gerra babesten dutela; gatazkari irtenbidea emateko azken konponbidetzat eta konponbide bakartzat jotzen dute. Hori, zelan ez, oso arriskutsua da, Marokok babes itzelak dituelako. Uste dut Fronte Polisarioak ondo dakiela ezin duela gerra batera jo, herri sahararra suntsituko luketelako eta Marokok indar eta babes handiak dituelako. Konponbidea negoziazioan, elkarbizitza eta erresistentzian dagoelakoan nago. Gaur egun, gainera, erresistentziak eroan dezake herri sahararra irabaztera.

Beste zer edo zer gaineratu gura duzue? J.S.: Aurreko egunean beste elkarbizitza bat egin zidaten eta Sahara hiru berbaz definitzeko eskatu zidaten. Eta hitz hauek egin nuen: erresistentzia, konstantzia eta elkartasuna. Beti dago azken hori zabaldu eta laguntzeko moduren bat. Ez dago zertan ni bezala maratonia korrika egin, hori lau zororentzat da: herri sahararra babesten duten GKE eta elkarte pilo dago. Baten batek lagundu gura badu, informazioa bilatu baino ez du egin behar. ◀



OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696



ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak

Getxoko kirol portua • 944 915 321

Martxoak 8 Uribe Kostan

Argazki-galeria
osoa ikusteko:



Eskualdeko milaka emakumek egin dute bat martxoaren 8ko greba feministagaz, eta kalera irten dira «munduak gu barik ez du funtzionatzen» esateko. Hainbat sektoretan oso arrakastatsua izan da lanuztea: hezkuntzan berbarako. Zailagoa da beste ondorio batzuk neurtzea, grebak zaintzaren arloan eduki duen eragina, adibidez. Algortan, Erandion eta Sopelan egin dituzte mobilizazioak, eta hango irudiak hartzen eta zuzenean berri ematen egon da HIRUKA. Gainera, Euskal Herri osoan eguna abiatzeko lehenengo ekitaldiak lotura estua eduki zuen gure eskualdeagaz: Portugaleten, Bizkaiko Zubiaren ondoan, 60 bat grebalarik performance-a egin zuten, Ezkerraldeko emakumeek Uribe Kostako etxeetan egindako zaintza-lanak gogoraraziz.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzioaburua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziertza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Sherezade ikuskizunaz gozatzeko 5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Martxoaren 24ko helduentzako ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, martxoaren 16a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Martxoko saria



Anima Te Getxo komertzioari esker, infusio bero-beroak hartzeko sorta

Komertzio horren ekimenez, sari hau zozkatuko dugu HIRUKA lagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali martxoaren 31 (zapateria) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

9								1
				3	6	2		
	3					5		
4			5	9				6
	5		3		2			
			8	6				9
		3						5
2			7					
5				4	1	8		

			5	8	2			
6								
	7	5				3		
	6				7	1		2
	1				5	6		
				4			8	
			1		8	7	3	
	8	2						
		9		6				

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

5	2	8	7	9	7	6	3	1
9	1	7	6	5	3	2	8	7
6	3	7	8	2	1	9	5	4
3	8	5	1	4	9	7	2	6
7	7	9	5	6	2	3	1	8
2	6	1	7	3	8	4	9	5
8	7	3	9	1	6	5	7	2
1	5	2	3	7	4	8	6	9
7	6	2	8	5	1	4	3	9

3	2	8	1	7	6	9	7	5
7	1	9	3	5	7	8	6	2
5	7	6	8	2	9	3	7	1
6	5	1	7	9	8	7	2	3
7	8	4	2	1	3	6	5	9
2	9	3	7	6	5	1	8	4
9	7	5	6	7	1	2	3	8
8	6	2	9	3	4	5	1	7
1	3	7	5	8	2	4	6	9

Hitza emanda

Eguraldia

*Eguraldia dabil
guztiz zoratuta:
lehortean hasita
uholdean buka;
goizez berrogei gradu,
gazez elurtuta...
Etzetik irten zaitez
ondo prestatuta!*



PERU DE PEDRO LARREA
Plentzia



Mundukatuak **Glasgow**

«Oso ondo hartzen dituzte kanpotarrak»



Marilyn Panayotou

Nongoa
Glasgow.


Adina
67 urte.

Zertan dabil
Erretiratua, luzaroan ingelesa irakatsi zuen berak irekitako akademian, Sopenan.

Ikasketak
Insitutua amaitzeraino.

Noiz heldu zen?
1975ean.

Noiz arte bertan?
Betiko.



Lurraldea
Eskozia.

Azalera
78.782 km².

Hiria
Glasgow.

Biztanleria
5.404.700 (2016).

Hizkuntzak
Ingelesa da hizkuntza ofiziala, baina beste bi gehiago daude: eskoziera eta Eskoziako gaelikoa. Panayotouk ez du horietako bakar bat ere menperatzen. Hori bai, urte batzuk daroatza euskara ikasten, eta moldatu egiten da gutxi gorabehera. Batzuetan berba-praktika egiten du hemengo lagunakaz, euskara eta ingelesa txandakatuz.

Moneta
Libera.

TESTUA: ALAZNE PALACIOS • UNAI BREA ARGAZKIA: M. SESES ▶

Marilyn Panayotou eskoziarrak Uribe Kostan, Larrabasteran, betiko geratzea erabaki zuen, seme-alabak hemen bizi direlako. Euskal Herrira bizitzera etorri zen getxoztar bategaz ezkondu zelako, lehenengo etxea Floridan (AEBetan) eduki bazuten ere. Alaba han eduki zuen; semea, berriz, Bizkaian jaio behar zen, baina Panayotouk sorlekura joatea erabaki zuen, ez baitzien medikuei ulertzen.

Euskal Herrira etorri zenean, industrializazio garaian, Bilbo «zikin» zegoela gogoratzen du. Glasgow bezala, hain zuzen. Hiri biek bilakabide bera eduki dutela azaldu digu: «Glasgow modernizatu eta edertu egin da, lehen fabrikak zeuden itsasadar bazterrean, orain etxebizitza garestiak». Handik joan zela denbora luzea igaro bada ere, aldiro familia bisitatzen du Panayotouk.

«Glasgowko jenda oso irekia da, jatorra, oso ondo hartzen dituzte kanpotarrak», esan digu, eta ñabardura gehitu: «Ez ingelesek bezala». Bere jaioterrikoak gainerako eskoziarrak baino be-

roagoak direla ere uste du. Berotasun hori gehien igartzen den momentuetako bat Gabonzahar gaua da (*Hogmanay* esaten diote Eskozian), hiriko milaka biztanlek St. Georges plazan ospatzen dutena. Bertara joatekotan ikusi barik utzi ezin duzuen txoko ederra da St. Georges.

Glasgow ez ezik Eskoziako hiriburua, Edinburgo, eta uharteak ere bisitatzeko aholkatu digu Panayotouk. Oharra emanda, ordea: eguraldia oso txarra da han. Udan ere ohikoak dira hotza eta euria. Hortik dator, seguruenik, Panayotouk gogoan daukan eskoziar ohitura bat: taberna barruetan egotea, giro onean eta zuzeneko musika entzuten. «Glasgowen, esaterako, denek dakite kantatzen; arratsalde osoa taberna berean ematea da ohitura, eta momenturen batean norberaren abesti kutuna abesteko aukera egoten da». Hori bai, ixteko ordutegiak Euskal Herrikoak baino askoz zorrotzagoak dira, «hango Elizaren eraginez».

Eta ohar bat berba-praktikan trebatzeko asmoa daukatenetzat: «Glasgowen egiten den ingelesa oso desberdina da, kostatu egiten da ulertzea; batzuetan beste hizkuntza bat ematen du». ◀